


Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko apirilaren 18a

*



Antton Luku, Ezterenzubiko bere etxeko idazteko erabiltzen duen gelan.

LUIS AZANZA

Antton Lukurekin solasaldia

■ Antton Luku idazle behenafarrak urrats garrantzitsuak eman ditu orain artean antzerkigintzaren alorrean. Donostia Hiria saria bitan irabazi du, *Tu quoque fili* obrarekin iaz, eta *Antso Azkarra edo Miramamolin en esmeralda* lanarekin aurten. Donibane-Garaziko Lizeoko ikasleek, gainera, berriki taularatu dute antzerki-

gilearen *Gerezitzea*. Asteartean, horri eta beste hainbat gairi buruz mintzatzeko aukera izan genuen Ezterenzubin Lukurekin. Eguzkiak agurtu gintuen lehendabizi, baina Amikuzekoaren semeek, eskatu gabe, masailan eman zizkiguten musuak izan ziren, zailantzarik gabe, jaso daitekeen ongietorrikeri beroena. ■

Mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



«Bizitza delako kirolak gogorrena...», zioen duela urte pare bateko iragarkiak. Ez dut maxima berri horri kontra egiteko asmorik. Mozkortuta zegoen batek asmatuta dela esatera menturatuko nintzateke. Jakina da mozkorrei biziki gusatzzen zaiela bizitzaz hitzegitea eta sentzentiak botatzea, eta horrelakoe-tan tentuz jokatu behar izaten da filosofo gautarra zapuztu ez dadin, haize gaizto batek jo ez dezan. Haizeak mozkorra, eta mozkorrek gu.

Sinesbide herrikoiei kasu egiten badiegu, ordea, ezin ahan-tzi mozkorrek egia biribilak eta zentzuzko ideiak ere esan ohi dituztela. Konstatazio-tik abiatzen dira, azken batean; pistola-tiroa denok entzuteko moduan egin dutela, alegia, eta lasterka egitea deliberatu duena jakitun dela geroak ekarriko diot: izerdia, ukondokadak, negarra, irria, dutxa eta onik onenen domina. Buruak ere moztu behar izaten dira,

Letra larriak

baina korrikalaria ez da ohartzen hasten den arte. Dog eats dog. Podium-a zapaltzea deitzen diote orain. Gogor, alai jokatu; fair play haundiz betiere.

Kronika ere eginen du norbaitek, letra larritan, garaiak markatzen duen gisan: «Osasuna Taldea Amildegiaren Er-tzean», «Euskadi taldearen Egoera Dramatikoa», «Hil ala Biziko Partida Labriten». Hitzten atzean balada heavy-a.

Pelikula baten karrankak urratu du oraingoan airea. Belgikatik heldu da eta «Promesa» du izenburua. Letra xehez kontatzen du periodikuetan eskuarki letra larritz agertzen dena. Korrika egiteari uko egiten diotenen istorioa da, joko garbian sinesten ez dutenena, aski ongi baitakite denok partixisean arituko garaia esaten denean ere beti dagoela xakeko arauet ari den norbait, blastakoa jo eta pieza guztiak ipurdiz goiti jartzen dituztenak azalduko direla az-

kenean. «Barra libre», aldarrikatzen du bakarrik hurbilen dagoenak.

Letra xehea xeheago egiteko gogoa ematen du «Promesa»-k, hitzak eta ideiak kateatzeko. Hitza jori etortzen da. Oinaze, idatz nekeza, eta biktima, bo-rrero, kaos, herri, atzerri, gose, egia, hil, eta argi eta promesa.

Antzeko asko zebilkidan etxerakoan, eta biharamonean, eta akaso betiko. Orain hobekiago ulertzen dut «Ni zine-mara ongi pasatzera joaten naiz» esaten duen hori. Barealdietan letra larriak nahiago, «doilarrak gara, gero!» ozenki esateak eskaintzen dizun sosegua. Budismora aldatzeak betiko bakea ekarriko liguken. Ardo finak dastatzeko ohitura duenak ere ez daki zer den mozkortzea Dalai Lamaren presentziatz gozatu arte.

Gero zelaira salto egin beharko. Urri-kirik gabe jokatu behar baldin bada, ekin, dardarik gabe, baina dotore. Bukatzerakoan beti bostekoa. X

GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Elizondo: Flaco Jimenezek, Tapia eta Leturia Band eta Otsondo 602 taldeekin batera, kontzertua eskainiko du bihar, hilak 19, Baztan pilotalekuan, eta gaueko 22:00etan. Sarrerak txarteldegietan 2.000 pezetan (80 libera) izanen dira salgai, eta aurretik 1.500etan (60 libera).

Barañain: Zarauzko abesbatzak kontzertua eskainiko du bihar, hilak 19, ilunabarreko 20:00etan, Kultur Etxean.

ERAKUSKETAK

Tafalla: Jesus De Irizibar akua-rela, marrazki eta oleoak hilaen 30era arte ikusgai izanen dira Kultur Etxean.

Iruñea: Kontxesi Vicente artista iruindarraren margoak hilaen 27ra arte ikusgai izanen dira Lacava kafe-erakustaretoan (Iñigo Arista, 24).

ZINEA

Iruñea: Kurdistan buruzko erreportaia eta *Un lugar en el mundo* pelikula ikusi ahal izanen da igandean, hilak 20, arratsaldeko 19:30etan, Iruñeko gaztetxean. Emanaldia Eguzki Bideoak eta Askapenak antolatu dute, eta musu truk gozatu ahal izanen da.

Tafalla: *La canción de Carla* gaztelaniaz pantailaratuko dute heldu den ostegunean, hilak 24, 20:00etan eta 22:30etan Cinema Españolen, eta Garcés De los Fayos Kultur Patronatoaren eskutik. Sarrerak 250 pezetan (10 libera) izanen dira salgai.

BESTELAKOAK

Zaragoza: Nafarroako Ateneoak Zaragozako (Aragoi, Espainia) Cinco Villas eskualdera (Sos Del Rey Católico, Uncastillo, Sádaba, Egea De los Caballeros...) ateraldia antolatu du biharko. Autobusak goizeko 7:45etan aterako dira Tres Reyes hoteleko kafetegia-aren paretik. Bidaia egitearen eta Egea De los Caballerosen bazkaltzearen truke 3.750 (150 libera) pezeta ordaindu beharko dira.

Ziordia: Ekuadorko Pachakutik erakundeko kide batek hitzaldia eskainiko du gaur, hilak 18, ilunabarreko 20:00etan, herriko elkartean.

Etxauri: Harkaitzetan egindako eskalada bi ikastaro antolatu ditu Nafarroako Goi Mendi Eskolak. Ikastaroak Etxaurin egingen dituzte apirilaren 19, 20, 26 eta 27an lehena eta maiatzaren 10, 11, 17 eta 18an bigarrena. Gazteek 10.000 pezeta (400 libera) ordaindu beharko dituzte ikastaro bakoitzeko, eta helduek, berriak, 14.000 (560 libera). Izena emateko edota informazio gehiago jasotzeko deitu 42 78 35 telefonora.

nafarkronika

Kike Diez de Ultzurrun

Iruñetik Nafarroara

Hasmentan UPNri lotutako bideo-tresna enpresa bateko nagusia zebilen tokiko komunikabideen arrakastaz baliatu nahian sos eder batzuk kolkoratzeke. Esne saltzailearen ipuinak, ordea, esku artean zanpart egin zion. Ondoren, erakuntzaren bidetik lau txakur txiki baino anitzez ere gehiago irabazitako modako enpresaria menturatu eta Tafallatik laster gorrian lekutu behar izan zuen buru engominaztatuaren irudi zuria pantailaratu zigun. Alferrik baina, mahai-inguru mamitsu zenbait bazterrean utzita, ez zuten burua goratu. Zenbait hilabetez moldagaitz eta trenputxarturik ibili ondoren, diru-txerto berria montio handian iritsi zaio eta itxuraz aldatuta agertzen da. Lehengoek eutsi diote, baina jende berria sartu da. Konparazio batera, Unibertsitate Pribatua, baita Nafarroa honetako ezaugarri kamustu bateko burua eta zartako-ontzia ere, erran nahi baita, Irigaray jauna. Dena den, Iruñetik Nafarroara egin nahi izan duten bidaje honen atzean Diputazioko agintariak ibili dira. Nafarroak, jakina, ez du bere baitarik deus ere egingen eskumen maila handitzeko, baina kasu!

ez dudarik egin, Nafarroak ozenki eta tinko aldarrikatuko ditu botere puska horiek auza-erkidegoak eta Kataluñak eskumen gehiago erdiestera. Bi komunitate horiekin alderatuta gure herrialdea hankamotz dabil, telebisio autonomikoaren alorrean, bereziki, eta hori ezin eramana gertatzen zaie UPNkoei eta enparauei. Zeozer egin beharra zegoen Durangotik heltzen den txoriari itzala egiteko, ez euskal txio-txioak botatzeko, noski, baizik eta erakusteko Nafarroa nor badela telebisioen aferetan. Halako batean, argia piztu zitzaion Diputazioko buru azkar bati, hots, Gobernuak kudeatutako diruak Telepamplonan sartu, Canal 4 Navarra izenarekin baitaiatu eta seinalea herrialdeko bazter guztietara hedatu. Horretarako, behar adina mendi kasketan errepikagailuak ezarri eta kitto. Horixe izanen zen Nafarroako kanal autonomikoa, atzeko atletik egituratua eta legetik kanpo, jakina. Prest zeuden hori egiteko eta egingen zuketena, zinez, zerbitzu juridikoetako legegizon batek ametsa zapuztu izan ez baldin balie. Bitartean, txoriaren txio-txiorik ez da argi aditzen, bertze leku batzuen artean, Iruñeko Alde Zaharrean.



asteko pertsonaiak



Joseba Gurrutxaga
Artisaua


■ Joseba Gurrutxagak eta bere anaia Mitxelok 1997ko Sanferminetako kartel lehiaketa irabazi dute. Artisauak dira lanbidez, legazpiarrak jaitzez eta iruindarrak bihotzez, 27 urte igaro baitira jada Nafarroara bizitzera etorri zirenetik. Zizur Nagusiko haien tailerrean besteak beste kartoia lantzen dute, eta maskarak egiten dituzte. Duela sei bat hilabete, Caravinagre Iruñeko kiliki ospetsuaren irudian oinarriturik maskara egin zuten, maska oihal gorri baten gainean jarri zuten, hori guztiari argazkia atera zioten, argazkiari errotuluak jarri zizkieten, eta emaitza zena 1997ko Sanferminetako kartel lehiaketara aurkeztu zuten. Emaitza bikaina zen, eta irabazi zuten.



Juan Antonio Perez 'Bolo'
Futbolaria

■ Oso litekeena da Bolok bihar Villarrealen estreinakoz soinea eramatea Osasunako elastiko gorria. Athleticek denboraldi amaierara arte utzi dio jokalaria Osasunari. Aurrelari fina ez dago izututa Osasunak sailkapenean duen postua dela kausa (jaitziera tokietan murgilduta dago): «Horrelako egoeretara ohituta nago, Athleticek B-rekin beti horrela ibiltzen ginen, eta azkenean mailari eustea lortzen genuen». Aurrelaria ezbezala, zaletu gorritxoak izututa daude, oso izututa, Bolok miraria eragiten ez badu, taldea jaistea oso litekeena dela iritzi baitiote. Hori guxti bailitzan, Eugik galdu zuen, Belokik baita ere, Indurainek txirrindularitza utzi du...

ahaztu gabe!



Eskola publikoaren jaia

Iruñea: Euskal Eskola Publikoaren Aldeko II Jaia antolatu du biharko Sortzenek, euskal eskola publikoaren aldeko mugimenduak. Jaia Taconera parkean izanen da, eta ekitaldi-egitarua goizeko 11:00etan hasiko dira. Ordu horretatik eta 12:00ak arte Euskalerrria irratia handik zuzenean ariko da, eta halaber hainbat ekitaldi izanen dira: margo tailerra, plastika tailerra, hanka-luzeak, ipuin kontalariak, herri kirolak, rokodromoa, txalaparta, gaiteroak... 12:00etan euskal dantza ikuskaria eta gazteentzako lasterketa (12 urte baino gehiago eta 16 baino gutxiago dituztenentzat) izanen dira. 14:30etan herri bazkaria egingen dute. Helduek 1.400 pezeta (56 libera) ordaindu beharko dituzte, eta txikiek 700 (28 libera). 16:00etan Nafarroako Bertsolari Eskolako kideak kantari ariko dira. Azkenik, 17:00etan jaiko izar nagusiaren ordua helduko da. Euskal Telebistako Euskaraokea izanen da zuzenean ikus eta entzungai ilunabarreko 20:00ak arte. Antolatzaileek jazo jaiko arrakasta errepikatzea espero dute.

adi!

Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, Zokobetailu goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara Karakola segi hola gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

Irati Irratia FM 107.7n eta 103.8n

Ostiralero Txirrirti-Mirrirti haurrentzako saioa 12.30etan.

Altsasu

Euskara eta kirola uztartuz

Ikastolen arteko XI. krosa korrituko da igandean Iñigo Aritzaren inguruan

Euskaraz ikasi ezezik, kirola ere egin daitekeela frogatzeko Ikastolen arteko XI. krosa korrituko da etzi Altsasun Iñigo Aritza ikastolaren egoitzaren inguruan. Lasterketa goizeko 10.30etan abiatuko da eta Nafarroa osoko ikastoletako seirehun haur inguruk hartuko dute parte.

I. Arrizurieta / Iruñea

NAFARROAKO Ikastolen Elkar-
teak Ikastolen Arteko XI. Krosa
antolatu du igandera. Laster-
keta Altsasun Iñigo Aritzaren
aurten 25. mendeurrena ospa-
tzeko antolatu dituen ekitaldien
barruan kokatzen da. Pello Ma-
riñelarena Nafarroako Ikastolen
Elkarteko zuzendariak azaldu
duenez, besteak beste, haurra
intelektualki ezezik fisikoki ere
prestatu behar delako egiten da
lasterketa. Beraz, erromatarrek
hainbatetan aipatu zuten 'men
sana et in corpore sano' leloa
praktikara eraman nahi du Ikas-
tolen Elkar-teak. Baina badu be-
ste helbururik ere igandeko arine-
keta saioak. Ikastolak abian jarri
duen *Euskaraz bizi* programaren
baitan kokatzen da ere lasterke-
ta. Euskara kalean hitz egiteko
bideak jorratu eta kalera atera
behar dela dio Mariñelarenak.
«Ikastolako klase orduetatik
kanpo kalean ere gure haurrak
euskaraz mintzatzeko egiten
dugu lasterketa. Haurrek kalean
duten gaztelaniaren presioa
handia da, eta euskara kalera
atera behar da eta horretarako
bidea ematen du honek». Era be-
rean, gurasoen inplikazioa lortu
nahi da. Haurrak kirola egiten



Haurrak klastetik kanpo lasterka egiteko aukera izanen dute.

ARTXIBOKOA

duen bidenabar gurasoak elkar-
teak dituen ikastolak ezagutu
ditzake eta harremanak estutu.

Lasterketa Iñigo Aritza ikasto-
laren inguruetan korrituko da
eta guztira seirehun haur ingu-
ruk eman dute izena. Oinarrizko
Hezkuntzako hirugarren mailako
ikasleetatik hasi Derrigorrezko
Bigarren Hezkuntzako (DBH) hi-
rugarren maila arterainokoak
izanen dute korrikan aritzeko
aukera. Iñigo Aritza ikastolako
ikasleez gain, lasterketan he-
rrialdeko beste ikastoletako nes-

ka-mutikoak ere hartuko dute
parte. Igandean Altsasun izanen
dira, besteak beste, Bera, Tafalla,
Viana, Atarrabia, Zizur Txikia,
Etxarri Aranatz eta Zangozako
ordezkariak.

Lasterketak bi ibilbide ditu,
bata 500 metrokoa eta bestea
800ekoa. Gaztetxoek 500 me-
tro dituen ibilbidea egingen duten
bitartean helduagoentzat 2 kilo-
metroko distantzia prestatua
dago. Ez dira haurrak bakarrik
izertdia eta nekea atera duten ba-
karrak, gurasoek eta ikasle ohiek

ere lasterketan aritzeko aukera
izanen baitute. Antolatzaileek
horientzat 3 kilometro pasatxo
dituen ibilbidea jarri die hankak
martxan jartzeko. Irabazleek sari
berezirik jasoko ez duten arren,
partehartzaile guztiei domina
emanen zaie.

Iñigo Aritza ikastolak 350 haur
ditu egun eta 25. urteurrena dela
eta beste hainbat ekitaldi egiteko
asmoa du. Igandekoa lehena izan-
nen da, euskarak lasterka egi-
teko ezezik zabaltzeko premia ere
baitu Sakanan barna. X

Iruñea

Jorge Cortes Izali
eman dio
Euskalerria Irratiak
Larreko saria

■ Ekainaren 13ko
irratiafarian
jasoko du oroigarria

Erredakzioa / Iruñea

IRUÑERRIKO Euskalerria
Irratiak euskararen aldeko
lanean nabarmendutako gi-
zon edo emakumeari ematen
dio Larreko saria. Duela bi
urte banatu zuten lehendabi-
ziko aldiz, eta orduan, 1995.
urtean, Iñaki Perurena lei-
tzarrak jaso zuen. Iaz, Sagra-
rio Alemanek hartu zuen, eta
aurten, euskaltzale handi be-
zain ezezagun bati egokitu
zaio, hots, Jorge Cortes Izal
jaunari.

Saria nori eman erabakitze-
ko 16 lagunez osatutako
epaimahaiak bilera egin zuen
artominten Iruleko Iparla el-
kartean. Bildutako en artean
euskalgintzan ari diren tal-
deetako ordezkariak, hala no-
la Euskaltzaindia, Unibertsita-
te Publikoko irakasle eus-
kaldunak, ikastolak, Sortzen,
AEK, IKA, Diputazioaren Eus-
kaltegia, musikariak, ikas-
leak, argitaratzaileak, idaz-
leak, teknikariak, kazetariak
eta Euskalerria Irratiko ki-
deak.

Duela 66 urte Otsagin sor-
tua, Jorge Cortesek lan izu-
garri handia egin zuen euska-
raren alde 67. urtetik aurrera.
Diputazioko Euskararen Al-
deko Sailean sartua, ikasto-
lak sortu eta bultzatu zituen
herri anitzetan, eta legeak es-
kaintzen zuen zirrikitu batez
baliatu zen legezko babes-
pean uztako garai hartako
ikastolak.

Cortesekin batera beste gi-
zon-emakume batzuk ere ibili
ziren, eta otsagiarrari eske-
rrak emateaz gainera, belau-
naldi osoaren egitekoa hartu
nahi izan dute aintzat epai-
mahaietako, egungo euskal-
tzaleek Cortes jaunak eta
beste haiek, urte latzetan,
burututako lanaren berri izan
dezaten. Izan ere, gorriak iku-
si zituzten behin baino gehia-
gotan eta sekulan ez zaien
jendarean aitortu burututako
lanaren ederra. Larreko saria
ematean izanen da horreta-
rako aukera.

Ohi denez, saria *euskal-
makila* bat izanen da eta hari
emanen zaio ekainaren 13an,
Uharteko pilotalekuan egingen
den afari jendetsu batean.
Euskalerria Irratiaren ekai-
neko afaria arras girotua izan-
ten da beti, jendetza handiak
parte hartzen baitu. Afariak,
gainera, denboraldiko irrati-
lanari amaiera ematen dio
urtero.

Euskalerria Irratiak Larre-
ko izena hautatu zuen Pablo
Fermin Irigarai idazle nafa-
rraren ohoretan, goitizen hori
erabiltzen baitzuen aurizta-
rrak. Izen bereko saria jaso-
tzen hirugarrena izanen da
Jorge Cortes Izal otsagiarrak. X

Uxue

Uxueko Lagunek hitzaldi
zikloa antolatu dute

■ Asteartean Tafallan eskainiko dute hirugarrena

Erredakzioa / Iruñea

UXUEKO LAGUNAK ELKARTEA
abian da, herriko ondare histo-
riko-artistikoa babesteko asmoz.
Elkar-teak bere ibilbideari hasie-
ra emateko, hitzaldi zikloa an-
tolatu du, herrialdeko ondare-
aren berri eman eta elkar-tearen
asmoak azaltzeko asmoz.

Gaur egun 200 kide inguruk
osatzen duen Uxueko Lagunak
Elkar-teak antolatutako hitzaldi
zikloa, hilaren 5ean hasi zen Pi-
tillasen. Hurrengoak, Tafallan
izanen da hil honen 22an, 24an
Erriberrin eskainiko dute hitzal-
dia eta maiatzaren 9an San
Martin Unxen. Zikloa osatuko
duten gainontzeko hitzaldiak

noiz eta non izanen diren zeha-
zteke dago oraindik.

Hitzaldi zikloaz gain, eta
Uxueko erromeriak egin aurre-
tik, Uxueko elizan kontzertua
eskainiko du bihar Tafallako
Abesbatzak. Uxueko eliza, hain
zuzen, Uxueko Lagunak Elkar-
teak babestu nahi duen onda-
rearen barruan nagusienetari-
koa da, eta haren egoera zein den
ezagutzeko asmoz, ikerketa egi-
ten ari dira elkar-teko kideak.
Teknikoek ikusi ahal izan du-
tenez, Uxueko elizaren egoera
«tamalgaria» da eta horren berri
emanen diote Nafarroako Gober-
nuko lehendakari Miguel Sanzi,
baita Iruñeko artzapezpiku Fer-
nando Sebastiani ere. X

Orreaga

Euskal katekisten eguna
ospatuko dute bihar

■ Orreaga eta Garraldan egingen dituzte ospakizunak

Erredakzioa / Iruñea

NAFARROAKO Euskal Pastoral-
tzaren Sailak antolatuta, euskal
katekisten eguna ospatuko dute
bihar Orreaga eta Garraldan.
Goizeko hamar eta erdietan ha-
siko dira eguneko ekitaldiak.
Ordu horretan, hain zuzen, talde
guztiei harrera egingen zaie
Orreagako Kolegiatan. Hamai-
ketakoa hartu ondoren, otoitz
eginen dute katekistek, eta otoi-
tzaldia amaituta, Kolegiata bisi-
tatuko dute.

Ondoren, Garraldara abiatuko
dira partaideak autobudez, han
ospatuko baitituzte eguneko
gainontzeko ekitaldiak. Eguer-
dian, hasteko, agurra izanen da

eta eskualde guztietako taldeen
aurkezpena egingen dute. Gero,
arratsaldeko ordu bata ingu-
ruan, pailazoan ikuskizuna
ikusteko aukera izanen da.


Arratsaldeko ordu bietan, bes-
talde, bazkaria egingen dute es-
kualde guztietako taldeek elka-
rrekin, Garraldan bertan, eta
hiruretatik aurrera, jaialdia
izanen da. Besteak beste, dan-
tzak, kantaldia, trikitixa eta
antzerkia izanen dira. Arratsal-
deko lau eta erdietan amaituko
dira ospakizunak.

Agurreko kantua abestu on-
doren, talde bakoitzak etxera-
ko bidea hartuko du, aurtengo
katekesi egunari amaiera ema-
nez. X

Antton Luku
antzerkigilearekin solasean

«Gazteen antzerkia ez da oraindik egina»

Antton Luku antzerkigile behenafarrarekin luze eta zabal hitzegin dugu Ezterenzubiko bere etxean



Antton Luku Ezterenzubiko karrika batean. Atze-atzekoa da bere etxea.

LUIS AZANZA

Edurne Elizondo / Ezterenzubi

DONIBANE-GARAZITIK zortzi kilometrorra dago Ezterenzubi, Nafarroa Behereko herri txiki bezain ederra. Asteartean eguzkiak goizean goizetik berotu zituen hango bazterrak, eta hamar eta erdietarako, arrantzalez beteta ziren ibai ertzeak, amuarrainik handiena harrapatzeko asmoz. Antton Luku antzerkigile behenafarra harrapatza hurbildu ginen gu Ezterenzubira, baita lortu ere. Hamaikak laurden gutxitan zabaldu zigun Lukuk bere etxeko atea, gure solasaldiari hasiera emanez. Gu sukaldetan ginen bitartean, alboko gelan jolasean ari ziren antzerkigilearen semeak, Iparraldean oportet baitira oraindik haurrak. Baita Antton Luku bezalako irakasleak ere. Apirilaren 2an Donibane-Garaziko Lizeoko ikasleek Vauban zinema aretoan egin zuten *Gerezitzea* lanaren estreinaldia, dena den, buruan fresko du oraindik antzerkigileak. *Gerezitzea* eta Lizeoko antzerki taldeari buruz egin dizkiogu lehen

Antton Luku idazle behenafarrak urrats garrantzitsuak eman ditu orain artean antzerkigintzaren munduan. Donostia Hiria saria bitan irabazi du, eta Donibane-Garaziko Lizeoko ikasleen eskutik, hirugarren obra estreinatu du berriki. Oporretan dela aprobetxatuz, Ezterenzubin izan gara Lukurekin mintzatzeko.

galderak, antzerkigintzari buruz duen ikuspegiaren mataza osatu asmoz.

■ **Lizeoko ikasleek euskaraz egin duten hirugarren antzerki lana da berriki estreinatu duzuen *Gerezitzea*. Nola sortu da proposamen berri hori?**

Ikasleen proposamenetarik abiatu ginan. *Laminak kolpatu* ipuina hautatua zuten ikasleek, nahi zutelako zerbait fartsazkoa egin. Gero oportet antzerkia idatzi dut, eta ondotik, irakurketa egin dugu, ados baitziren alegiarekin. Alegia soziala da, kontsideratzea laminak zer diren orain, bai Euskal Herrian, eta baita Euskal Herritik kanpo ere. Ikusi ditugu testuan ziren intenzioak eta zer gertatzen ahal zen hortan joko. Izan da mementu bat biziki aberasgarria, denendako, neretako eta baita ikasleendako. Biziki talde trinkoa

izan da. Eta obra biziki anitza. Testua eta solasa batzuetan kontra jarri dira, nahitara egin dugu hori, edo bi lekutan jartzea joko. Horiek guztiak dira taldeko lanak.

■ **Lana estreinatua da jada. Zernolako harrera izan du?**

Jendea etorri da beti bezala, hirugarren urtea baitugu eta bada halako publiko fidelizatu bat. Neretako baikorrena da anitz gazte badela mementu honetan. Pentsatzen dut obra arrakastatsua izan dela, erran nahi baita polemika sortu duela aski, galak eta baita antzerki moldeak ere. Erran nahi izan da jokoak trabatzen duela ulermena eta hementxo publikoa formatua da testua gozatzeko, eta testua ez da gozatzen ahal, aldi berean pasatzen bada beste gauza bat. Kritikak aski baikorrak izan dira, baina ageri da ere, nabaritzen da gazte

antzerkia dela, eta beraz, guk gure denboran egiten ginuen antzerkitik aski ezberdina.

■ **Ezberdina da gaurko Iparraldeko gazteen antzerkia?**

Ez da egina. Pentsatzen dut behar balitz egin, behar leikela desberdina egin, gazteen erritmoa eta antzezteko moldea ez baitira berdinak. Beste erreferentziak badituzte eta ni bezalako erdi zaharrentzat zaila da antzemaitia zertan duten indarra, eta zertan nahi duten kementa ezarri. Nik antzerkiak ezagutzen dudun apurra Hiruak Bat taldean ikasi dut, Guillaume Irigoien eta horiekin. Biziki errotuak ziren herrian, eta beti egin dute antzerki bat gorputz sozialara biziki lotua, tradizio bat ekartzen zuten biziki sartua ekimen sozialean. Orain gazteek ez dituzte erreferentzia berak, herria ere ez da lehen bezain trin-

koa, erran nahi dut herri tipiak, egungo gazteak mugitzen dira gehiago, kontzertu batera joaten dira Baionara, guk egiten ez genuen gauza bat. Publikoa ere zabalagoa da. Pentsatzen dut gazteen antzerkia ez dela oraindik egina, baina egiteko lan bat dela.

■ **Gerezitzea eta baita Donostia Hiria saria bigarren aldiz eman dizun Antso Azkarra edo Miramamolin en esmeralda ere, fartsa dira. Gustuko duzun generoa da kontatzeko duzuna kontatzeko?**

Ez nuen pentsatu. Zuk galdera egitearekin ohartu naiz. Bai, gustatzen zait. Antzerki molde hori gustukoa dut. Guillaume Irigoienek idazten zuen antzerkia ere herri antzerkitik atera zen, toberatik eta abar. Biziki markatuak dira pertsonaiak, laster identifikatzen ahal direnak, eta badu karrika antzerkitik zerbait ere. Aski maite dut genero hori.

■ **Zer abantail eskaintzen dizu, zer baliabide?**

Metafora argia da, erran nahi baita, nik beti pentsatua ukan

Antton Luku
antzerkigilearekin solasean

dut, eman dezagun, Guillaume, Mattin Irigoien eta horien antzerkiek, behar dutela lotura izan biziarekin, bizi konkretuarekin. Baina hasten badira kurtsoa ematen publikoari, publikoak ez du hori gustuko. Argi da katexima bat egiten bada, hori ez dela atsegina. Behar da fikzio bat pentsatu. Antso Azkarra edo Miramamolin en esmeralda lanan, adibidez, Antso Azkarra ikur bat da, denek baliatzen dutena.

■ **Antso Azkarra bezala, iazko Donostia Hiria saria irabazi zuen zure *Tu quoque fili* lana ez da oraindik oholitza gainera eramane. Zer dela eta?**


Horretarako behar dira jokariak antzeman, talde batek hartu behar du bere gain asmo hori. Emanen dira beharbada, baina antzerkiak balio du ere paperean, nahiz eta espezialisten gauza izan. Testua taulan eman edo ez eman, biak badira. Antzerkien memoria testuetan da, pentsatzen dut antzerkiak memoria behar duela eta memoria da mementu batean autore batek edo norbaitek egiten duen zer-bait. Hemen gertatzen da gelditue bat badela. Bordaxuri bezalako taldeak, adibidez, ez dira hilak, gauzak prestatzen dira gehiago eta orduan, maiztasunaren aldetik gutiago ematen dira. Baina ikusten badugu, Pantxo Irigarai idazten ditu testuak, Mattinek ere bai, Guillaumek ere bai, nik ere bai. Ez da figura handi bat, baina Iparraldeko populazioa ikusiz, ikusten da heldu dela jende anitz, eta nik esperantza badut. Balore efimeroa da antzerkiarena, eta denbora berean behar du nonbait lotu, erra nahi baita, behar direla testuak, eta behar da iturri bat.

■ **Zure obrak taularatzea, orduan, ez da funtsezkoa zuretzat?**

Argi dut nahi baldin bada antzerkia taulan ikusi behar dela egin, baina orain gertatzen da iruditzen zaidala garrantzitsuena gazteekin lan egitea. Hor bada lan bat egiteko, bada joko berezi bat antzemateko, antzezteko beste molde bat. Pentsatzen dut behar dela beste talde bat, eskolatik kanpo, Hiruak Bat zen bezala, hemen barnekaldean. Garazin edo Amikuzen edo beste nonbait. Uste dut gazteak lotuko direla antzerki pisuago batzuei, politikoagoak. Toberaren arraberri-tzea ere egitekoa da, egin behar den gauza da. Pentsatzen dut behar dela talde sendoa, egoitzarekin, behar da leku bat jendea biltzeko, dantza taldeak diren bezala, eta beharbada, dantza taldea izanen dena funtsean, enetako gauza bertsua baita.

■ **Joko berezi bat antzeman behar dela erran duzu, beste molde berriak. Bukatu al da orduan zuen belaunaldiak herri antzerkiaren eskutik egin zuen lana?**

Herri antzerkia herri satirikoa da, erran nahi baita helburua behar duela, eta helburua soziala da beti. Funtsean behar da jendea lotzeko. Ez da eginen halako fikzio handi bat baina ez da herri antzerkia izanen hori ez badu. Herri antzerkia erraten dudalarik erran nahi dut baduela funtzio bat, ez jendea eskolatzeko baina bai ohartarazteko, satira da. Guk



Amikuzeko antzerkigilea elkarrizketaren une batean.

LUIS AZANZA

«Balore efimeroa da antzerkiarena, eta denbora berean behar nonbait lotu, behar dira testuak eta behar da iturri bat»

dekoak ere ezberdinak direla uste al duzu?

Ez dut uste. Diferentzia da Hegoaldean badirela hiriak, eta han badira antzoki handiak, eta badira profesionalak, eta bada telebista. Nik pentsatzen dut egoera berdintsua dela Baztanen eta hemen, adibidez, beraz, lotura erraza izanen litzateke. Baztanen eta hemen, gainera, hizkuntza bera da.

■ **Profesionalak aipatu dituzu. Zuk, dena den, antzerki amateurren garrantzia azpimarratu izan duzu. Zein da gaur egungo egoera Iparralden?**

Gu hasi ginela bazen beste talderik, Oztibarrekoa, Bordaxuri ere, eta beste. Gero giroa apaldu da bi arrazoiengatik ene ustez, batzuk adina hartu dutelako eta beste gauzetan ari direlako, eta beste aldetik, Bordaxuriaren diskurtsoa, adibidez, oso argia zen, gutiago atera baina hobe. Baina sortu dira beste

«Antzerki amateurrek behar du antzeman bestelako bide bat. Gehiago da ausartziaren harrobia»

pindar batzuk ere. Antzerki herrikoia egiten ari dira Armendarritzen, orain abiatu dira Lekui-nen ere Mattin Irigoien testu batekin, egiten dute bankan ere...Giroa bada, beraz, falta dena talde bat da, helburu horrekin, antzerki bolada baten markatzeko. Amateurrek behar dute antzeman beste gauza bat, beste bide bat, beste dekor bat, arinagoa, gehiago ausartziaren harrobia da.

«Hirurak Bat taldea utzi genuen, ez ase ginelako, baina beste lanak eta ardurak genituelako»

ANTTON LUKU Amikuzen jaioa bada ere, hemedetzi urte zituela, Ezterenzubiko eskola tipian hartu zuten irakasle. Han bizi da oraindik. Antzerkiaren munduan lehen urratsak ere, Ezterenzubian eman zituen antzerkigile behenafarrak, hango antzerki taldearen eskutik. Ainhiztarrekin jarri zen ondoren harremanetan, eta Hiruak Bat taldean hasi zen jokalaria. «Hiruak Bat taldean, Guillaumek idazten zuen eta gure lana zen hura antzezte. Baina kohesio handia zegoen gure artean. Hasieran taldean ez zegoen zuzendari profesionalik eta denen artean egiten genuen. Eginez formatzen zen jendea. Azken bi urtetan profesional bat izan genuen eta hor ikusi genuen antzerkia ere ikasten dela».

Hiruak Bat taldeak sei antzerki eman ditu indarrean egon den urteetan, 1991an azkena. «Gelditu ginen, ez ase ginelako, baina beste lanak eta ardurak genituelako. Hiruak Batek ondarerik utzi badu, pentsatzen dut dela antzerkia egiteko moldeak, behar dela testu bat baina testua idazten dela beharrez, ez dela idazle kontsagratua izan behar hori egiteko. Ez dut uste gure artean inork hartzen duela bere burua idazletzat».

Hiruak Baten garaiko jokalaria lana amaitu bada ere, antzerki aktoreen mundua ez du bazter utzi Antton Lukuk. Orain dela lau urte Donibane-Garaziko Lizeoan euskara irakasle lanean hasi zen, eta orain dela hiru, antzerkia erakusten die hango hamabost eta hamazazpi urte bitarteko gazteei. Asteazken arratsaldetan biltzen dira. *Ezkonduko ditugu, Manuela* eta *Gereizteza* dira orain arte Lizeoko antzerki lanak eman dituen fruituak.

Jokalaria lana bazter utzi badu ere, antzerkia idazten jarraitu du Antton Lukuk. «Guillaumen eraginez hasi nintzen», gogoratu du. Donostia Hiria saria bi aldiz irabazi duela erran dezake orain. «Sariak garrantzitsuak dira kontzentratzeko. Idazten dudana hemendik kanpo ere ulertzen dutela erakusten dit». Proiektu berriei buruz galdetu diogu, eta erran digunez, beti du buruan zer-bait. Denbora behar du orain, idazteko. X

Xanti Begiristain

Zuzengabekeriak jarraitzen du

■ Argi eta garbi dago, mundu honetan ongi eta eroso sentitzen denak ez duela presa handirik gauzak alda daitezen.

Honela ba, denok ikusten dugu arazoez eta gatazkek beren horretan jarraitzen dutela, berdintsu eta ia-ia deus ere mugitu gabe. Hala, hortxe segitzen dute bi pertsona bahituek agertu gabe (Ortega Lararen kasuan, gainera, ezin esan genezake Espainiako Gobernuak eta Erakunde Penitentiarioek ahalegin handirik egiten ari direnik ezbehar hori irtenbideratzeko). Asteazkenean berriro gertatu zen beste atentatu bat, Martuteneko Juan Jose Baeza funtzionarioarena, alegia. Eta astero-astero nabaritzen dira kale borrokaren ondorioak hainbat lekutan, besteak beste.


Baina, orain aztertzen badugu piska bat beste aldea, edota, nolabait esateko Ezker Abertzalearena, orduan ikusten dugu, horie ere egiten zaiz-

rraitu behar dutela baraualdiak egiten baina herri-herri, salaketak bizikiago zabaldu eta hedatzeko.

Halaber, gogoratu beharko dugu Iruñeko apaiz-gaitegian, oraindik orain, zortzi gazte ausartek egin duten berrogei eguneko gose greba arrazoi berberarengatik. Eta ez dezagun ahaztu, oraintxe bertan, preso politiko asko eta asko ari dela baraualdia aurrera eramaten, legez dagozkien gutxieneko giza eskubideak aldarrikatzeko. Eta zergatik? Ba, doi-doi, errespetatzen ez zaizkielako aipatu eskubide demokratiko horiek.

Gorago esandako guztiari, erantsi beharko litzaioke, hau den-dena gertatzen dela egunero zuzenbideko estatu batean, eta gaineran, demokraziaren izenean.

Orobat, ez da soberan egonen gogoraraztea, Gasteizko Parlamentuak bi aldiz eskatu duela



kiela mila eta bost bidegabekeria, esate baterako, presoen sakabanaketa mantenduz, tratu txarrak eta batzuetan torturak praktikatu, sendabiderik ez duten presoak espetxeetan jarraitaraziz, gauza bera eginez kondenaren hiru laurdenak bete dituztenekin, eta presoen senideei merezi ez dituzten zigorrak eta eragozpenak ezarritik, beste kontu askoren artean. Adibidez, ezin ditugu ahaztu euskarari egiten zaizkion zapalketak, mesprezuak eta abak, bakar batzuk baino ez aipatzearren.

Baina, era berean gogoratu beharko dugu Donostiako Artzain Ona katedralean urte bat eta lau hilabete daramatzatela gose grebak edo baraualdiak egiten txandaka, astero, presoen alde. Azkar esaten da eh? 70 bat aste eta txanda igaro dira dagoeneko.

Orain, aldiz, Senideak-ekoek erabaki dute ja-

dagoeneko, euskal presoak Euskal Herrira ekar ditzaten eta beren eskubide guztiak errespetatu daitezen, baina denborak aurrera egiten duen arren, gizarte honetako sektore askok ez dute inolako presarik sufrimendua bukaratzeko. Hala, PSOEk eta PPK beren kaskagogorkeria berean irauten dute, eta EAJk ere, berriro esan du oraindik ez dela garaia Europako erakundeetara jotzeko, hau da, itxaron beharra dagoela.

Nabaria da gizarte honetan, batez ere politikari eta agintadun gehienak, oso gustura eta eroso bizi direla orain arteko egoeran, eta ez dutela beharrik somatzen aldatzeko.

Bien bitartean behintzat, ospatu beharko dugu HBko mahaikide preso politikoak askatu dituztela. Gero, epaiketa egin ondoren, ikusiko da errudunak ote ziren. ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Euskaldunak
Mérimeeren eta Lotiren
bihotz begietan

■ Euskaldunek orok ezagun du erromantizismoak askoz ere begirune xamurragoa izan zuela gure herriarekiko, aitzineko urteetan ilustrazioak izan zuena baino. Ez dakit ordea ongizate nabarmenagoa erakarri zigunentz, eta, paradigmatikoa askoa izanik ere, Lotik berak ezbaian ezartzen zuen turismoaren ankerkeriarekin erkatzekoa jazo dakiguke zuzenki, horren esotiko eta horren ekialde urruneko egin balaikintuen behin baino gehiagotan XIX. mendeko literatur korronte hits bezain oparoak. Beharrik, euskaldunon nortasuna doi bat berderik ere nabarmentzeko, baliagarria izan zela Europako bidaiari ezberdinen langintza ugaria, eta horrela, besteak beste, joan den mendean beren lanen gaitzat behin baino gehiagotan izan gintuzten bi idazle haundi Mérimée eta Loti frantximantak bagenituen.

Prosper Mérimée Moreau 1803.eko irailaren 28an Parisen sortua zen, eta ia 67 urte beranduxeago, irailaren 23an hain zuzen, ber hiri-buruan zendu zen. Aunitzak ziren izan Penintsulara burutu bidaztiak, eta haien kariak, Euskal Herrietatik eginiko paseak, batik bat, 1834.ean aberriko monumentu historikoen behagile izendatu zutenetik. Mérimée izkiriatu ezagunenetakoa ospe zabaleko Karmen elaberria dugu. Paristarra euskaldunen miresle eta ezagule fin zagerkigula ez da gauza berria, horretaz luze mintzo eta idatzi baita. Aspaldian alko baztandarreko Jose Maria Iribarren Rodríguez tuterarrak *Carmen, la gitana que sabía vascuence* largatu zigun honen erakusgarri —*Historias y costumbres*, Iruñea, 1949—, baita Argetas aldeko Elizalde Armendariz josulagundiaren filologoak, —erribertarren eskutik datozkiguke beraz—, Mérimée ez zekien euskaraz, baten batek bai gabe baleztatu duen gisaz, euskaltzalea ageri bazen arren, eta esotismoaren zantzu ote zuen gure hizkuntza. Halaz guziz, hainbat hitz jakin bazekizkien, baita erabili ere, Montijoko kontesari igorri mezuetan aitortu bezala: «Burgosen, 1840.eko urriaren 16an: Bart Gasteiztik jinikoei afaldu nuen. Diligentzia hainbat neska menditar nahiz bizkaitar bazetorren, zein baino zein politagoa. Arrakasta haundia izan nuen haiekin euskaraz esan nizkienek eskerrak»; «Baionan, 1840.eko urriaren 21an: "Gasteizko neskeekin asko ikasi dut euskaraz. Neska haietan ederrena zenari Irungo ostatuetakoko apaingarrik politena zela esan nion, tamalez ezer onik lortu gaberik: Nai desu nerequi etorri Franciera? Eta berak ihardetsi zidan: Esgarriko asco».

1845.ean argitara agertuak arras aldatuak azaldu zen Georges Bizeten opera ezagunean, nahiz 30 urte eskax besterik ez bete bi aldairen artean. Bizetek konposatu musika Henri Meilhac eta Ludovic Halévy bikoteak ondu paperari egokitu behar izan zitzaion, eta Parisen 1875.ean estralenekoz taularatu zen. Alabaina, bi hauen arteko tartean, guretako interesekoak litekeenak badira. Mérimée asmatu zituen bi pertsonairik nagusienak nafarrak genituen, Joxe Lizarrabengoa Elizondokoa, eta Karmen ijitoa, Etxalarkoa. Ikerlariak diotenez, Joserenak garaiko Tempranillo izengoitiko bidelapur Rondarra zezakeen iturburu, huraxek ere, Granadan apezgai ziharduela, emakume baten atzetik ihes egin baitzuen, geroantzean Gibraltartetik Españarako kontrabandoan aritzeko. Karmen buruz berri haundirik ez da. Jakin badakigu Mérimée ijitoak izugarri interesatzen zitzaizkiola, eta Borrowen lanak ondo baino hobeto ezagutzen zituela. Iribarreni jarraituz, 1907.ean Pariseko *Le matin* egunerokoak Karmenen birbiloba zatekeenari eginiko elkarrizketa argitaratu zen. Ber testua Buenos Airesko *La prensa* izparringian ere beragertu zen 1907.eko irailaren 18an. Horren arabera Karmen egiazkoa zen, benetako izena Ar Mintz zen, hau da, menderakaitza, eta abizena Naduzhka zuen. Joxe ere, ez genuen asmatuzkorik, nafarra zen, eta ijitoek Issar Abgoa deitu ohi zuten, itzal txarreko kanpotarra alegia. Hil aurretik Karmenek alaba erditu zuen, Djarko izeneko abeslariarekin ezkondu zena, eta honek ere Thiecla izeneko bere alaba izan zuen, Gibraltarreko Harry Gresham soldaduaekin ezkondu zena. Azken bi hauen alaba elkarriztatua litzateke. Edozein modutan ere, Iribarrenek gezur huts zuen kontu zikin guzti hau, eta guk bide beretik gindoazke.

Mende hasmentako erromantizista Mérimée, eta mende hondarreko Loti, bere neurrian gutxienez doke. Louis Julien Viaud Rochefort-sur-Mer herrian 1850.eko sortu zen, aitzineko sendi hugonot baten altzoan. Gazte zela, misiolari egitekotan arizan zen, baina koxkortzerakoan, mariñela izatea xedatu zuen. Laster batean, idazle bezala egin lanak mariñela gauditu zuen. Lotik ezizenak Viaud estali zuen moduan, eta 1891.ean Frantziako akademian onartu zuten, Zola erretxin baten desioel aitziz, eta Loti beraren drestintasun lotsagabearekin. 1892.ean Baionako ibaizabalean pausalekua zuen Javelot izeneko itxasontzi txikieraren komandante izendatu zuten, eta horren kariak Hendaian ezarri zuen bere bizitokia. Bakar-etxea zeritzanean. Harrez geroztik, Euskal Herriak berebiziko arreta bereganatu zuen Lotiren idazkigintzan, eta *Pays Basque: recueil d'impressions sur l'Euskal Herria* artikululu sorta utzi bazigun ere, euskal senategiaren mirail erabatekoa bere *Ramuntxo* izanen genuen, Parisko Calmenn-Levyrenetik 1896.ean atera zena. Karmenekin agitu antzera, honakoa ere Gabriel Piernéren musikaren laguntzaz taularatu zen, papera Lotik berak ondu bazuen ere. Idazki honen jatorria Lotik berak ezagutueta kokatu beharra dago. Ramuntxo Azkaineiko Otharre izeneko pilotari-kontrabandari bat genuen, Loti bera pilotaren munduan sarrarazi eta hezi zuena. ■

Irrati berria sortzeko bidean

Imotz, Basaburua eta Ultzamako euskara batzordeen bidez eratu da ekimena, eskualde osorako

Euskarazko herri irrati berri bat sortzeko bidean da. Imotz, Basaburua eta Ultzamako euskara batzordeak bultzatzen ari dira ekimena. Jauntsaratsen egonen da, udaletxean, Ultzama, Basaburua, Imotz, Atetz, Odieta eta Lantzen entzun ahal izanen da. Proiektua gauzatu ahal izateko, elkarte berria sortu da eskualdean: Ametza Kultur Elkartea. Hainbat kide izan da gurekin asmo berriari buruz mintzatzeko.

Eduñe Elizondo / Iruñea

IAZKO udaberrian, Imotz, Basaburua eta Ultzamako euskara batzordeen eskutik, euskarazko herri irrati sortzeko ekimena abian jarri zen. Lehenengo urratsak egin ondoren, ekainean bilera egin zuten hiru bailaretako ordezkariak Lizason, baita irratia-aren proiektua aurrera eramateko batzordea sortu ere.


Ordur geroztik, gainera, irrati sortzeko eman beharreko pausoak emateko, elkarte berri bat dago eskualdean: Ametza Kultur Elkartea.

Jauntsarats herrian egonik, Ultzama, Basaburua, Imotz, Anue, Odieta eta Lantzen entzungo den irrati eskualduna sortzea du helburu.

Irratiaren proiektuak eskualde osoko lagunak bildu ditu, tartean Imotzko Begoña Okiñena, Basaburuko Maria Puy Arano eta Ultzamako Ricardo Igoa, Axi. Eta erran digutenez, euskara bera da martxan jarri nahi duten irratia-ren helburu nagusia. «Basaburuan bereziki, eta Imotzen, euskara maila nahiko ona da, gehienek hitz egiten dute. Gaur egun, dena den, erdaldunak dira entzuten dituzten irrati gehienak. Hori dela eta, euskarazko irratia- jendearen jakinmina piztuko duela uste dugu», azaldu du Maria Puy Aranok.

«Ultzamako egoera ezberdina da», gaineratu du Axi. Bailara horretan, hain zuzen, alde nabarmena dago herri batetik bestera euskararen egoerari dagokionez. «Auza eta Eltzaburu aldean, euskaraz asko egiten da, baina beste alde batzuetan gal- tzen ari da, erabilera batez ere. Irratiaren bidez, berreskuratu nahi dugu. Gauza bera gertatzen da Anue, Lantz, Odieta eta Ate- tzen».

Irratiak euskara berreskuratzea helburu nagusi izanen badu ere, izanen du besterik ere, hala nola eskualdeko biztanleek eus- kara erabiltzeko zerbitzu berria eskaintzea, informazio zabala, interesgarria eta egunerokoa eskaintzea, bertako informazioa nabarmentzea, eskualdeko bizi- lagunen topagune izatea eta haien arteko kohesio soziala lortzea. Azken horri dagokionez, es- kualde handia eta oso ezberdina dela azpimarratu dute Ametza



Ricardo Igoa, Begoña Okiñena eta Maria Puy Arano, Ametza Kultur Elkarteko kideak.

JOXE LACALLE

Euskara uhinen bidez bultzatu

IRRATIA abian jarri nahi zutela erabaki bezain pronto, eskualdeari bu- ruzko ikerketa egiteari ekin zioten Ametza Kultur Elkarteko kideek, irrati berriko saioak nork jaso- ko dituen jakiteko, fi- nean.

Jaso dituzten datuen arabera, jaiotze tasaren jaitsiera eta emigrazioa- ren ondorioz, demografi- koki beherapen nabar- mena izan duen eskual- dea da. «Migrazioak emakume eta gazteengan du eragina batik bat, eta hori dela eta, adinari eta

◆ sexuari dagokionez, oso

populazio desorekatua dugu aurrean».

Bestalde, Ametzak irratia-ri buruz egin txos- tenak jaso bezala, kultu- raren alorrekoa da es- kualdeko hutsunerik lar- rienetarikoa. «Herri txi- kiak izanda, ez da erraza jendea elkartzea. Eta gaz- teek behar dituzte gehien- halako elkarguneak. He- men aurkitzen ez dituz- tenez, Iruñera jotzen du- te». Egun dauden taldeei —Irkaiz Basaburuan, Tuxuri Imotzen, Morkotx Ultzaman, Pulunpe aldiz- karia, AEK eta IKAKo euskaltegiak,...— lagun-

tza eman behar zaiela us- te ezezik, irrati-ri elkarte- ko, proiektuak zabaltzeko eta ekintzak planteatzeko gune aproposa izan dai- tekeela pentsatzen dute elkarte-ko kideek ere.

Bilgune ezezik, eskual- deko gurasoek D ere- duaren aldeko apustua egin dutela kontuan har- tuz, irrati-ri haur eta gaz- teentzat lagungarri izan daiteke Ametzako kideen ustez. «Eremu euskaldu- nean eta mistoan gaude. Hortaz, euskararen erabi- lera bideratu eta bultzatu beharra dago. Legeak ematen digu egiten du-

guna baino zertxobait ge- hiago egiteko aukera, eta bide horretan kokatu be- har dugu irratia-ren proiektua».

Nafarroako Gobernuak 1991. urtean egindako inkesta soziolinguisti- koaren arabera, hain zu- zen, Ultzaman herritarren % 60k ongi ulertzen dute euskara, eta % 44 ongi mintzatzen dira; Basa- buruan % 93k ulertzen dute ongi, eta % 86 ongi mintzatzen dira; Imotzen ia % 85ek ongi ulertzen dute ongi eta % 73 inguru ongi mintzatzen dira; Ate- tzen % 44,9 eta % 36,4,

Lantzen % 39,8 eta % 30,6; Anuen % 29,9 eta % 21,2; eta Odieta- n % 27,5 eta % 14,7. Ame- tzako kideen iritziz, eus- kara galbidean dagoen bailaretan lan handia egin dezake irratia- k. «Erabilerrari dagokionez ere, aztarna guztien ara- bera, gero eta gutxiago egiten da euskaraz. Ga- lera oso larria da, batez ere gazteen artean gerta- tzen delako, eta orain arte euskaraz bereak izan di- tuen esparruetan, kalean eta etxean alegia. Alor ho- rretan ere, berebiziko la- na egin dezake irratia- k».

elkarte-ko kideek, eta, beraz, de- nentzako irrati-ri sortzea dela oraingo erronka. Ez dute uste, dena den, arazo handirik izanen dutenik, eta eskualdean egin eta banatzen den Pulunpe euskaraz- ko aldizkaria jarri dute adibide, nabarmendu dutenez, oso ongi erro- tu eta finkatu baita eskual- deko bailaretan.

Zortzi milioi pezetako aurrekontua lehen urtean • Ametza Kultur Elkartea eskualdeko udale- txeetan aurkeztu du jada irratia- ren proiektua. Erantzuna, dena den, ezberdina izan da batzuetan eta besteetan. «Finantzabideak aztertzen hasi ginen eta udale- txeek parte hartu behar zutela pentsatu genuen», argitu du Ma- ria Puy Aranok. Hori dela eta, bi eskaera luzatu die elkarteak udaletxeei, proiektua onartzea,

alde batetik, eta dirulaguntza, bestetik. «Ultzamako Udalak bakarrik eman dio ezezkoa proiektuari. Gaintontzekoek onartu dute, eta ahal dutenek, diruz lagunduko dute», azaldu digu Begoña Okiñenak.

Udaletxeen laguntza ezezik, bilatu du Ametza Kultur Elkar- teak beste finantzabiderik ere. Proiektua abian jartzeko, adibi- dez, Garalur Elkartearen lagun- tza jasoko du, eta Nafarroako Gobernuari ere eskatuko dio. Gainera, bazkide berriak lortzeko kanpaina egiten ari da Ametza, elkarte-ko kideek argi utzi dute- nez, eskualdeko herritar guztien laguntza behar baitute.

«Hasieran beharko dugu diru gehien, alde batetik irrati-ri mun- tatu, eta bestetik, urte osoko aurrekontua behar dugulako. Denetara, zortzi milioi pezeta

inguru beharko dugu lehen ur- tean», azpimarratu du Aranok. Hori dela eta, Ultzamako Udalak proiektuari ezezkoa ematea ez da batere berri ona izan Ametza El- karteko kideentzat, eskualdeko biztanle gehienak bertan bizi baitira, eta beraz, udal horri ze- gokiola dirulaguntzarik han- diena ematea, basaburuarrak azaldu digun legez. Ultzamako Udalak utzitako hutsunea bete- tzeko, hainbat ekimen jarriko du Ametzak abian datozen hilabe- teetan. Hasteko, bihar, gaupasa egingen dute Larraintzarren. Ba- lardi Balerdi eta Drindots taldeak herriko pilotalekuan izanen dira, goizaldeko ordu batetik aurrera.

Kudeaketa elkartearen esku • Kudeaketari dagokionez, irratia-ri buruz idatzi lehenengo txostenak hiru aukera jasotzen

bazituen ere, Ametza Kultur El- karteko kideen ustez, irratia-ren gestioa tokiko erakunde autono- mo baten esku uztea da egokie- na, Ametza Elkartearen esku, alegia. «Gure asmoa halako bat- zorde nagusi bat eratzea da. El- kartea eta udaleko ordezkariak izanen litzateke horren partaide, erdibana». Ametzako kideen us- tez, kudeaketa udal baten esku utziz gero, zailagoa izanen litzate- ke irrati zabala egitea, eta bes- talde, enpresa baten esku utziz gero, herritarren eta taldeen par- tehartzea lortzea izanen litzateke zailagoa.

Orain urtebete abian jarritako asmoa egia bihurtzeko oraindik lan handia egin beharko badute ere, Ametza Kultur Elkarteko ki- deak pozik dira, eta irrati-ri urte bukarean martxan jartzeko asmo sendoa dute. ✱

◆ Faustino Gil Aizkorbe ◆ Eskultorea

«Mugimendu artistiko garrantzitsua dugu»

Agoizko Bilaketa kultur taldeak lehen aldiz antolatutako Agoizko Hiria Eskultura Lehiaketa Faustino Gil Aizkorbe nafar irabazi du, *Alegre recuerdo* izeneko lanarekin. Hala jakinarazi zuen lehiaketako epaimahaiak joan den apirilaren 2an. Olokin jaio baina zazpi urte zituenetik Iruñean bizi den eskultorea pozik agertu da sari berriarekin.

Eduñe Elizondo / Iruñea


IRATIKO trena da Faustino Gil Aizkorberen —Faustino Aizkorbe esaten diote— *Oroitzapen alaia*. «Txikitan ezagutu nuen, nire herriatik pasatzen baitzen». Trenari eskainitako eskulturarekin irabazi du Agoizko Hiria saria, eta trenari eta eskulturari buruz mintzatu da gurekin.

■ **Bilaketak antolatutako Agoizko Hiria Eskultura lehiaketako lehen irabazlea izan zara. Pozik izanen zara...**

Bai. Parte hartzeak ilusio handia ematen zidan. Sariaren berri jaso nuenean informazio gehiagoren bila joan nintzen Agoitzera, eta lehiaketak Irati trena nolabait omendu nahi zuela jakin nuen. Parte hartzea erabaki nuen, batez ere, oroitzapen hagitz onak nituelako. Irati trena txikitan ezagutu nuen nere herriatik pasatzen zelako. Eraitsi zutenean, zazpi urte nituela, herriko haur guztiak joan ginen trenbidean gelditzen ziren iltze eta xafra guztiak jasotzera, txatar-biltzaileari eraman eta hark emandako diruarekin goxoak erosten genituen. Eguneko orduak markatzen zituen trenak. Lehiaketa, beraz, dibertigarria iruditu zitzaidan, atsegina, haurtzaroko oroitzapena, finean.

■ **Alegre recuerdo izena du, hain zuzen, zure obrak.**

Izen hori jarri nion, trena nerretzat hori delako, oroitzapen alaia. Eskulturak begirale baten burua irudikatzen du, denbora nola pasatzen den begiratzen ari den pertsonaia. Oso naif da. Bu-



Faustino Aizkorbe eskultore nafarra, Iruñeko tallerrean.

LUIS AZANZA

rua eta lurraren artean, halaber, trenbide zati bat dago, eta buruaren gainean, tren txiki bat duen esfera erdia.

■ **Oso eskultura handia da.**

Bai, bost metroko altuera izanen du. Hormigoizko ia bi metroko oinarriaren gainean, altzaruzko hiru metroko pieza jarriko dut, begira dagoen burua alegia. Urdin, gorri eta horiz margotuta egonen da. Lehen trenaren geltokia zen eraikinaren aurrean kokatuko dugu. Osasun etxea da orain, eta nere ustez, eskulturaren neurriak kontuan hartuz, ongi geldituko da, proportzionatuta. Erakusketa amaituta, uste dut berehala hasiko naizela lanean.

■ **Sari berezia al da Bilaketak emandakoa zure karreran?**

Egia erran, nere bizitzaren, inguruaren, nere herriaren oroitzapenekin zerikusirik duten gauza guztiak bereziak dira. Nafarroako gauza guztietan parte hartzea gustatzen zait, modu ezberdinean sentitzen ditudalako, oroitzapenak ekartzen dizkirate eta ilusio berezia dut parte hartzeko. Bilaketak lehiaketa hau antolatzen duen lehen aldia da, gainera. Ibilbide luzea egin dute jada kulturaren alde eta meritu handia daukate. Nere ustez, lan honen bidez, eskultura, pintura eta literatura bezalako arloak bultzatzen dituzte, eta horri esker, erreferentzi garrantzitsua izan daiteke Agoitz.

■ **Lehiaketan parte hartu duten 61 obretatik, hain zuzen, hamabost nafarrak izan dira.**

Nafarroan mugimendu artistiko hagitz garrantzitsua dugu, bai

eskultura zein pinturari dagokionez. Jende gazte asko ari da gogor lanean, eta lehiaketako lanean egindako erakusketan bertan ikusi ahal izan dudanez, aniztasun handia dago. Ea hurrengo urtean oraindik jende gehiagok parte hartzen duen, ahalik eta interesgarriena izan dadin.

■ **Sari hau Nafarroan irabazi baduzu ere, atzerriarako hainbat proiektu duzu une honetan.**

Bai. Orain Indian, Bombayn zehazki, erakusketa bat prestatzen ari naiz. Urte bukaeran izanen da ziurrenik. Emakumeari eskainitako erakusketa da eta ilusio handia dut egiteko, nerretzat abentura baita, hagitz erakargarria. Japonen ere erakusketa bat egiteko asmoa dut. Lehen ere erakutsi izan ditut han nere lanak, iaz adibidez. Orduan lauzpabost eskultura eraman nituen, baina oraingo honetan, nere lanek bakarrik osatuko dute era-

kusketa. Figurak prestatzen ari naiz, baita egurrez egindako muralak. Lan berriak dira, ezberdinak, baina beti ere nere trazuari eutsiz. Udaberrian izanen da, ziurrenik. Estatu Batuetan ere, New Yorken, denbora dudanean, erakusketa egiteko asmoa dut. Nerretzat, egia erran, oso garrantzitsua da lanak hemendik kanpo erakustea, alor berrietan borrokatzeko aukera eskaintzen baitu horrek. Japon edo Indian erakusketa bat egitea, adibidez, oso aberasgarria da nerretzat.

■ **Zure trazuari eutsi diozula aipatu duzu. Nolako da zure estiloa?**

Oso librea beti ere, inolako loturarik gabe, edozein eraginetik at dagoena. Nere obra gestuala da, baina aldi berean zabala, obra poetikoa, dibertigarria da. Ez dut une dramatikorik sortu nahi, alderantziz, naturaren formen eragina jaso duen obra dela uste dut.

s o s l a i a

1948. urtean Olokin jaio zen Faustino Aizkorbe, eta han bizi izan zen, zazpi urterekin Iruñera etorri zen arte. Uharten hasi zen eskolan orduan, eta hasieratik agerian gelditu zen marrazteko zuen gaitasuna. Arte eta Lanbide Eskolan garatu zuen ondoren gaitasun eta zaletasun hori.

Bakarrik ere asko ikasi zuela azpimarratu du Aizkorbek. Eskulturari denbora osoa eskaini aurretik, marrazketa lineala egiten zuen bizi ahal izateko. «Pixkanaka, independentzia irabazi nuen, eta egun nire eskulturei esker bizi naiz».

Faustino Aizkorberen izena ezaguna da egun Nafarroa osoan, baita gure herrialdeetik kanpo ere, hemendik at erakusketa ugari egin baitu, besteak beste Estatu Batuetan, Suitzan eta Japonian.

«Lanak kanpoan erakustea oso aberasgarria da nerretzat, beste alorretan borrokatzeko aukera ematen baitit»

BEKARIO!

Zaldi Eroa

